

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako museoek askotariko eskaintza prestatu dute Museoen Nazioarteko Egunerako eta Europako Museoen Gauerako

*"Museo eta Paisaia Kulturalak" da aurtengo goiburua*

Ostirala, 2016.eko maiatzak 13

Datorren astetik aurrera, Nafarroako museo eta bilduma museografiko iraunkorrek, Iruñeko Planetarioarekin eta Nafarroako Filtotekarekin batera, bat egingo dute maiatzak 18an ospatzen den Museoen Nazioarteko Egunaren 38. edizioarekin, eta maiatzak 21eko Europako Museoen Gauarekin.



Lizarrako Karlismoaren museoa.

Erakunde bakoitzak askotariko [doako jardueraren programa](#) bat prestatu du (esteka honetan eskura daiteke), gizarteari modu erakargarrian eta parte-hartzailean beren bildumak hurbiltzeko asmoz.

Programatutako ekintzak era guztietako jendearentzat da, eta ondorengo proposamenak eskaintzen dituzte, besteak beste: bisita gidatuak, tailerrak, kontzertuak, filmak, dokumentalak, film laburrak eta dramatizatutako antzezlanak.

Foru Legeak aitortutako museo eta bilduma monografiko iraunkorretarako sarrera nahiz programatutako jardueraren gehienetarako sarrera doan izango da Museoen Nazioarteko Egunean.

### Museoen Nazioarteko Eguna

Museoen Nazioarteko Kontseiluaren sareak (ICOM) gai bat aukeratzen du urtero Museoen Nazioarteko Egunerako, eta haren helburua museoaren kezka gizartearekin partekatzea da.

"Museo eta Paisaia Kulturalak" da edizio honetarako hautatutako gaia, eta ekipamendu horiek inguruan duten paisaiarekiko duten erantzukizuna aztertu nahi da, paisaia horri beren ezagutza eta eskumenen bidez lagundu diezaioke haren kudeaketan eta mantentze lanetan protagonista aktiboak izanik.

### Europako Museoen Gaur

Duela 10 urte baino gehiagotik, maiatzeko hirugarren larunbatean, Europako hogeita hamar bat herrialdeetako museoek bisitariei beren atea irekitzen dizkiete, doan. Gau horretan, beren bilduma iraunkorrak

aurkezteaz gain, zentro batzuek entretenimendua, topaketak, ikuskizunak, irakurketak eta kontzertuak eskaintzen dituzte.

Maiatzaren 21eko gauean, larunbata, Nafarroako eta Karlismoaren museoek Europako ospakizun honekin bat egingo dute; hala, beren ateak irekiko dituzte gauez, eta beren bildumak ikusteko bisita gidatu bereziak egingo dituzte.